

**EUSKARARI BEGIRA, 20. MENDEAN BARRENA**

Hogeigarren mendearen amaieran, atzerantz begiratzea berezkoa da, mende batek ezkutuko eta ageriko asko gordetzen baitu golkoan. Denboraren joan-etorrian, 100 urteko epea esanguratsua da eta gogoetarako abagunea dakarkigu aurrera.

Euskararen esparrua aztertu nahi nuke pixka bat; baina begirada arin-arinez. Mende honetako haren argazki zahar eta berrietatik erakusketa txiki antzeko bat eratuz.

Hizkuntzak ahorik aho eta lumarik luma aldatuz joan ohi dira denboraren altzoan. Hizkuntza biziak esan nahi dugu betiere. Ez latina bezalakoak, haiek artxibo batean bezala gordetzen baitira ahorik gabe mutu... Aldaketa hauek berezko hizkeran, hots, ahozkoan dute oinarria eta hortik idatzizkora pasatzen dira poliki-poliki. Guk, gogoetatxo hau egin ahal izateko, ezinbestean, idatzizko dokumentuetara jo dugu, garai zaharretako ahozko lekukotasunik ez baitugu izan eskura. Hizkuntza idatzizkoa beti da finkoagoa, arautuagoa, batuagoa eta konbentzionalagoa. Ahozkoaren ñabardurak, lekuan lekuko forma bizi-biziak nekez aurkitzen dira idatzizkoan. Ahozko hizkera, hiztunaren berezko gaitasunaren araberakoa da; bat-bateko jarioan egonik, ez da erabiltzen bahe esturik eta erdaratiko hainbat hitz eta forma botatzeko engararik ez da izaten. Idatzizkoa, berriz, jantziagoa, txukunagoa eta zainduagoa izan

ohi da; baina, jakina! motelagoa eta astunagoa ere bai... Honekin, ahozkoaren zertzelada asko ez direla idatzizkoan jasotzen, esan nahi nuke. Euskara idatzizkoan, gai hauetan adituak diren pertsona eta erakundeen arauak eta gomendioak jarraitzen dira. Hau da, ez da haitzetik harako ura, kloroz tratatua eta gizakiak hala-hola erabilia baizik. Eta hau nabarmenago izan ohi da bizkaiera eta zuberera bezalako ertzeko euskalkien kasuan. Berezko urbegitik urrunago gertatzen da orduan idatzizko euskara, arauak eta konbentzioz hartzen diren erabakiek erdirantz jotzen haitute ia beti...

Mendearen lehen zatiko euskararen lekukotasun bila hasi naizenean, hizkuntz joeraz gain, orduko kezka eta arduraz ere jabetu izan naiz pixka bat. Euskarari dagokionez, joerak nahiko argiak dira. Sabin Arana-Goiriren eragina ukaezina da. Honen lanak gogoz hartzen zituzten orduko euskaldun askok; ez politikari edo aberriari zegozkionak soilik, baita euskarari zegozkionak ere. Bilbon eta Bizkaian argitaratzen ziren aldizkari eta liburuxketan hori oso nabaria zen. Gain-gainetik begiratu ditudan *Euzkeltzale-Bazkuna*, *Ekin*, *Euzkerea* argitalpenak dira horren lekuko. Hauetan, salbuespenak salbuespen, bizkaiera darabilte. Lehenengo bietan ia bizkaiera bakarrik; *Euzkerean*, berriz, gipuzkera ere ageri da noizbehinka, baina hemen euskara baino gehiago gaztelania dator... *Karmen'go Argian* idazle bakoitzak bere euskalkian idazten du, baina lanik gehienak bizkaierazkoak dira. *Argia Egutegia*, *Zeruko Argia* aldizkarietan gipuzkera agertzen da bereziki eta nafarrera noizbehinka. Euskaltzaindiaren *Euskeraren* 1. alean (1920) idazle bakoitzak bere euskalkian idazten du eta guztitarik dago.

Garai hartako idazle asko euskara garbia erabiltzearen obsesioaz bizi zirela dirudi. Horrek betiko euskara eta tradiziozko hitzak baztertzeraz eraman ditu hainbat euskaltzale. Jakina! horretan neurri ezberdinak daude. Batzuk ertz-ertzerraino joan ziren, garbizalekeriak jota. Beste batzuk begiratuagoak izan dira eta betiko forma jatorrei eusten jakin dute, modako berrikeria

batzuk sartu arren. Gerra aurrean eta gerra ostean, euskaran ongi sustraiturik egon arren, erdaratiko guztia arbuiatu eta hitz berriak asmatzeko joera bizia izan zen. Horrek pisu handia izan du hainbat urtetan. Hala ere, garbizalekeriak ukitutako idazle guztiak ez dira multzo berean jartzekoak. Batzuek, lexikoaren zipriztin horiek gorabehera, euskara ona, herri-herriarena darabilte. Ebaristo Bustintza "Kirikiño", Txomin Agirre, Juan Bautista Eguzkitza, R.M.Azkue, P. Zamarripa etab. ospe handikoak dira Euskal Herri osoan eta guztion gogotan daude. Hala ere, oraingoan, beste izen batzuk aipatu nahi nituzke; pixka bat ezkutuan geldituak, baina merezimendu handikoak diren beste izen batzuk: Imanol Enbeita, Martin Uriarte, Gabirel Jauregi, Alejandro Larrakoetxea (Aita Hipolito)...

Orain ikusi ditudan aldizkari zaharren artean, *Euzkerea*-n datoz Imanol Enbeitaren lanak; *Karmen go Argia*-n Martin Uriarte eta Gabirel Jauregirenak eta Euskaltzaindiko *Euskera* aldizkariaren 1. alean A. Hipolitoen (Alejandro Larrakoetxea) lan luze bat, euskararen batasunari buruz.

Imanol Enbeitaren biografia eta lana nahiko zabal aztertu genituen *Karmel* aldizkari honen 1997ko 4. alean. Han honako hau idazten genuen: "Idazkera argia zuen. Esaldiak egoki tolestean, haiei gorpila ematen zekien, herri-esapidez ongi hornituz eta gozatuz. Bai olerki eta bertsoz, bai hitz lauz joskera onaren eta ongi esatearen maisu ageri zaigu. Kazetari-lanak eta bertsolari izateak eragingo zioten, beharbada, gauzak labur eta argi esatera. Izan ere, kazetariak ez du hizkuntzaren apainduriazko tolesturetan galdu behar, gauzak hitz gutxitan, erraz eta garbi azaldu baizik. Bertsolariak ere, hitzetik hortzera ari denak batez ere, entzuleak mezua bat-batean jasotzea nahi badu, metafora ilun eta sakonetan sartzerik ez du izango noski... Horrela ageri zaigu Imanol Enbeita ere. Bere garaiko euskara darabil; bizkaiera; lexikoa eta ortografia sabindiarra; baina hori gorabehera, edonork ulertzeko eran idazten du, euskaldunza-

har peto-pettoa, euskaraz pentsatzen duena eta euskaraz bizi dena delako.

Umores nahiz serio, zirika nahiz sentimenduz, gozo nahiz ozpin-tantta batzuekin... unean-unean behar den erregistroaz baliatzen daki. Baina gai garratzean ere garrakeriarik gabe, bere nortasunari, bere aburuari eutsiz, baina gizatasunez idatziko du”.

Aita Hipolito. Alejandro Larrakoetxea Agirrezabala zeritzan. Karmeldarren Ordena barruan kargu garrantzitsuak izan zituen gizona. Jakintsua, hainbat hizkuntza zekizkien. Erroman eta Begoñako Karmelon eman zuen ia bere bizitza osoa; Altzon ere egin zituen urte batzuk eta azkenengo urtea Markinan. Hementxe hil zen. Sail askotan agertu zuen bere jakinduria, baina euskara, zuzenbide kanonikoa eta karmeldarren historia zituen gogokoenak: 1. euskarazko lanak: oso gazterik itzuli zituen alemanieratik bizkaierara Grimm Anaien Ipuinak. Zuzenbide Kanonikoaren Legedia ere itzuli zuen euskarara eta Kardaberaz Bazkunaren bitartez argitaratu. “Legoaldi” izenordez igorri ohi zituen bere idazlanak garai hartako euskal aldizkarietara. 2. Zuzenbide Kanonikoari eta legeei dagozkien lanak. 3. Ordenaren historiari eta bereziki Avilako Teresaren garaikoari buruzko lanak. 400 orrialdeko ikerlan bikaina burutu zuen “P. Jérôme de la Mère de Dieu Gratien, Coadjuteur de Ste Thérèse. Etude historique-juridique” izenburuaz. Adituen iritzi, oraindik inork ez du gainditu lan hau, baina ondorioak hain berri eta ausartak izanik, argitaratu gabe geratu zen... Ikerlanari buru eta bihotz emanik, aurrera jo zuen A. Hipolitok eta 1973an Erromako **INSTITUTUM HISTORICUM TERESIANUM** sortzeko aitzindarietarikoa bera izan zen, ondorik etorri diren gazteek, Arratiako baserritarraren eskutik zuzia hartzearen harrotasuna agertzen dutelarik.

Zuzenbide Kanonikoa itzultzerakoan, erdaratikoak ez zituen onartzen-eta, euskarazko hitz berriak moldatzeari ekin behar izan zion, gaurko irakurleontzat testua gogortxo gertatzen de-

larik. Orain dela urte batzuk, Anjel Loberak aztertu zuen itzulpen hau *Karmel* aldizkari honetan, legeetan aditua denak egin dezakeen gaitasunez. Gainerako lanetan euskara erraz-errazean idazten zuen. Beti bizkaieraz.

Martin Uriarte (A. Martin). Hau ere arratiarra. Batez ere bi aldetatik zetorkion ospea Aita Martini: sermolaria izatetik eta *Karmen* go Argia-ko zuzendari eta idazle izatetik. Irakurleek gogoko zituzten Aita Martinen lanak, batez ere "Egi biribillak" eta "Baserri gaiak"... Aita Martin ere garbizalea zen, baina herri herri sermoiak egiten asko ibilia izanik, euskal sena eta betiko euskararen gorpila ongi barneraturik zituen... Horregatik, lexikoan garaian garaiko haizeak nabari izan arren, haren idazkiak osotasunean hartuz, jator-jatorrak ziren.

Gabirel Jauregi. Aramaiotar hau *Karmel* aldizkariaren irakurleentzat nahiko ezaguna da honezkero. 1995. urtean, haren jaiotzaren mendeurrena zela eta, ale monografiko bat atera genuen. Bestalde, Aramaioko Lore-jokoen mendeurrena iazko urtearen amaieran izan zen, eta orduan ere behin eta berriro aipatu zen Etxagueneko seme argi hau. Jauregirena zientzi arloa zen. Fisika, kimika eta zientzietako irakasle zen karmeldarren filosofiako ikastetxean. Irakasle-lanaren emaitza gisa, bi liburu argitaratu zituen: *Pisia* eta *Kimia*. Liburu hauetan, erdarazko zientzi izenak adierazteko, hainbat hitz berri asmatu zituen. Baina *Karmen* go Argiaren irakurleentzat lan errazagoak, gozoagoak idazten zituen: "Izarren gora-berak" eta beste zientzi gai batzuk.

Idazle hauek ondorengoentzat eredugarri izan ziren; beraien lanen kalitateagatik baino gehiago, beharbada, garai zailetan, Bizkaian betiko euskara baztertu eta euskara sabindiarra goigoian jartzen zen garaian, gaitz horri aurre egiten jakin zutelako. 60ko hamarkadan oraindik beste urrats batzuk eman ziren bide onetik. Gauzak onera etorri ziren apurka-apurka. Hizkuntza zaindua, jasoarabiltzen idazleak ditugu herrialde guztietan. Ekarpen onak eta interesgarriak datoz, hauen bidez,

euskal literaturara. Ezin aipatu gabe utzi Nemesio Etxaniz, Jon Etxaide, Santi Onaindia, Lino Akesolo, Eusebio Erkiaga, Augustin Zubikarai, Manu Ziarsolo, Aingeru Irigarai, Piarres Larzabal... Geroago Txillardegi agertzen zaigu, eleberri modernoaren aitzindari. Hauetariko gehienek lanak euskalkian idatzirik daude. 1968an Arantzazun egindako batzar ospetsuaz gero, euskal idazleak eta euskarazko argitalpenak bitan zatitzen dira: batzar hartako espiritua onartzen dutenak eta gaitzesten dutenak. Gaurko ikuspegitik begira, gauzarik axalekoenak piztu zuen borroka-sua: ortografia baturako proposatu zen letra xume batek, *b*-ak. Gutxi behar, antza denez... Baina batzar ospetsu horren aurretik ere, idazle batzuk euskalkien mugak gainditu nahirik agertu zitzaizkigun. Euskara batua arautu gabe zegoenean, koine antzeko bat egiten saiatu ziren. Besteak beste, izen hauek datorzkit gogora: Gabriel Aresti, Luis Villasante, Alfonso Irigoien, Juan San Martin... Harritzekoa ote da laurak bizkaieradunak izatea? Euskara batuaren lehen saioa, gipuzkera osotua zeritzona, R.M.Azkue bizkaitarrak egin zuen; berak egitasmoa agertu eta berak egitez bete ere, *Ardi Galdua* narrazioarekin. Lino Akesolo, Santi Onaindia, Jokin Zaitegi eta beste bizkaieradun askok ere gipuzkera osotu antzekoan idazten zizuten euren lanak, lehenengo biek bizkaieraz idazteari ere utzi gabe.

### **Gerra aurrekoen kezkek eta gaiak**

1920an, Euskaltzaindia jaiotze berri zela, euskararen batasunaz irakurri ziren hitzaldi eta txostenak datoz urte horretako *Euskera*-n. A. Campion eta P.Broussain euskaltzainek batera egindako txostena dator lehenengo, Bitor Gaubeka, A. Iñaki Ayengiz kaputxinoa, Manuel Egileor, A. Hipolito, Nikolas Ormaetxea, S.J., Aingeru Madariaga, Gotzon Urrutia, Nicolás Cortés, Agustín Anabitarte, Joseba Zabala-Arana, Kruz Goyenetxe, Bitor Garitaonaindia, Federiko Belaategigoitia, Eguskitza eta azkuek irakurritako txostenak datoz eta beste batzuen iritzi laburrak ere bai.

Gerra aurreko aldizkarietan ageri diren gaien artean aberria eta erlijioa izango dira, beharbada, gehien agertzen direnak. Hauen ondoan euskara bera dator. Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian, berezko denez, euskara da gai nagusia. Hauetariko aldizkari batzuk erlijiosoak dira eta ez da harritzekoa erlijio-gaiak agertzea. Esaterako, *Zeruko Argia* kaputxinoena da eta, edukiari eta estiloari dagokienez, ez du zerikusirik guk, 60. hamarkadatik honantz ezagutu dugun astekariarekin, haren jabetza urte luzeetan oraindik kaputxinoena izan arren. 1920-1925. urteetako aleak izan ditut esku artean eta gai erlijiosoa darabil goitik behera. Deboziazko gaiak, hagiografikoak, bertso eta kantu erlijiosoak... *Argia Egutegia*, ostera, kultur aldizkaria da. Lan xumeak eta gustagarriak dakartza. Garai hartako euskaldunei neurri txikitxotan eskainitako jaki gozoak. Guztitarik dakar... *Karmen go Argia*, oraingo *Karmel* honen aurrekoa, kultur aldizkaritzat har genezake; erlijio-gaiak hemen ere erruz datoz, baina bestelakoak ere bai; esaterako, Martin Uriartek gai erlijiosoak ere idazten ditu, baina haren lanik ugariak "Baserri-gaiak" eta "Egi biribilak" dira. Gabirel Jauregik, berriz, zientzi gaiak darabiltza soilik: astronomiakoak ("Izarren gora-beherak"), botanikakoak, zoologiakoak... Literaturako lan xumeak ere ale guztietan datoz, esaterako, ipuinak, olerkiak, bertsoak... *Ekin* astekaria herri-herriko argitalpena zen Bizkaian. *Ekin*, *Jaungoiko-Zale Bazkuna* ren *Asterokua* zeritzan. Herrietako albistez osatzen zen gehienbat. Bizkaiko familia euskaldunetan oso etxekoa zen.

Argi denez, garai hartan ez zen gai korapilatsurik lantzen euskaraz. Horietaz idatzi behar zenean, erdarara jotzen zen. Historia, zientzia eta arteak... gaztelaniaz. Hizkuntzari zegozkionak ere, pixka bat zailak izanez gero, gaztelaniaz idazten ziren. Gabirel Jauregi dugu horretan salbuespena eta aitzindaria. Nahiko harrigarria da, gainera, zein argi eta erraz idazten duen gai hauei buruz, edonork ulertzeko eran. Literaturan, munduan zehar ospe handia izan zuten lanak itzultzen ahalegin handi samarra egin zen; esaterako, Oscar Wilde eta Grimm

anaien ipuinak itzuli zituen Joseba Altuna bilbotarrak. Grimm anaien ipuinak Legoaldik (Aita Larrakoetxea) ere bai, goraxea-go esan dugunez. Gerra ostean, berriz, obra handi eta zailak agertzen dira, batez ere itzulpenak. Hauen artean, klasiko greko-latinoen itzulpenetan saiatu ziren Santi Onaindia eta Jokin Zaitegi. Baina gure aurrekoen itzulpen-lan handiak aipatzean, berez-berez datozkit gogora Larrakoetxea anaiak, Hipolito eta Benito. Hark Zuzenbide Kanonikoa itzuli zuen euskarara eta honek Shakespeareren obrak. Pedro Berrondok Miguel de Cervantesen “Kixote Mantxako” itzuli zuen eta Pedro Puxanak Bizkaiko Forua.

Euskara batuaren erditzea gertatu zenean, euskara kultur bitziza osorako tresna baliagarria izango zela sinesturik ziren euskaldun asko. Horrela, lanari buru eta bihotz loturik, era guztitako hiztegiak, eskola-liburuak, literaturazkoak, zientzietakoak egin dira. Irakaskuntzan lehenengo eta administrazioan ondoren leku eginez joan da euskara. Zuzenbideari dagokionez, gauza xumeak egin izan dira garai zaharretan. Baina arlo hau euskaraz sistematikoki lantzen hasi berri dela esan genezake.

### **Euskal testuen jantzia**

Testuen jantzia esatean, begien aurrean lehenen agertzen dena esan nahi dugu: *grafia edo hitzen idazkerako zeinuak*.

Mende hasieran euskarak ez zuen berarizko grafiarik. Inguruko erdaren grafia erabili zuten gure klasikoek eta mende honen hasieran ere hala jarraitu zuten, ordurako Sabin Arana-Goirik sistema ortografikoa berritzeko proposamen argiak egin arren. Sistema berri hau pixka bat geroago sartuko zen indarrean. Gerra aurrean eta gerra ostean ortografia sabin-diarra nagusituko da. Hegoaldeko argitalpenetan, funtsean, haren ortografia izango da eredu, ukitu txiki batzuekin. Kontsonante batzuk, esaterako, “r” gangardunak eta “l” marra-txodunak eragozpen handia ziren inprimategirako... Beraz,



erosotasunagatik, joera batzuk baztertuz joan ziren. Garai horretako beste ezaugarri bat, deklinazio-atzizkia eta aurreko izena bereizteko txitean-pitean erabili ohi ziren apostrofoak ditugu: izen berezietan, zenbakietan, datak idaztean... tildez markatuak agertzen ziren testuak; beste horrenbeste adizkien aurrean **ba** baldintzazkoa jarri behar zenean. Arantzazuko euskara batuaren batzarrera arte iraun zuen egoera horrek. Oraindik badira lehengoari gogor eusten diotenak, eta Arantzazuko batzarra eta Euskaltzaindia inoiz izan ez balira bezala jokutzen dutenak...

Iparraldean, jakina denez, ortografia sabindiarrek ez du eragin handirik izan. Euren grafia izan dute, Euskaltzaindiak arauak finkatu arte.

Euskararen ortografian **b** letra sartzeak ekarri zuen berritasunik handiena Hegoaldeko usadiora. Bere garaian zalaparta eta haserreak izan ziren hori zela eta ez zela. Honezkero gauzak bere onera etorri dira eta, lehengoan gogor irauten dutenak beti izan arren, gehientsuenak onartu dute; batzuek gogoz; beste batzuek, berriz, adituen esanera burua makurtuz...

### **Euskalkia eta euskara batua**

Azken urteotan, euskalkian idatzitako hainbat lan agertu ohi dira. Hau ertzeko euskalkietan gertatzen dela esan genezake. Batez ere bizkaiera indartzearen aldeko joera somatzen dugu. Hau ongi bideratua eta antolatua den mugimendu bat da. "Mendebalde" izan daiteke mugimendu horren ardatz. Euskara batuaren barnetik eta haren espiritutik sortutako elkarteak dugu. Ez du inola ere euskara batua arbuiatzen, gutxiago oraindik haren aurka egiten; baina euskara batua bere bidean joanik, arriskuan egon daitekeen eta batuaren eraiketan nahiko ahaztua izan den bizkaiera indartzera jo nahi luke. Gogoeta sakon batetik abiatu da. "Mendebalde" elkartearen ahalegina serioa eta ongi oinarritua da. Lekuan lekuko aldizkari batzuen joera, oster, ez da gure gogokoa. Batzuek ahozko hizkera

darabilte idatziz. Jakina! askok euskara batua eta ahozko bizkaiera ezagutzen dituzte soilik, eta bizkaiera batuan idatzi beharrean, entzumenez jasotakoa ematen dute lumaz... Hau baino ia okerrago da norbere erako bizkaiera asmatzea, bizkaiera literariorik inoiz izan ez balitz legez; Mogeldarrak, Frai Bartolome, Añibarro, Astarloa, Uriarte, Kiriño, Txomin Agirre... inoiz izan ez balira legez. Bizkaieraren morfologia eta egiturak unean-unean asmatzen jardutea, haiekin esperimentuak egitea guztiz kaltegarria da...

### **Aldizkari zaharretako ataltxoak**

Mende honetako euskararen adibide edo puska batzuk jarri nahi dizkiot irakurleari aurrean; ez oraintsukoak, hauek esku-eskura izan baititzake egunero, zaharrak baizik:

Amilgain (*Euzkerea*, 1929'gko. otsalla 15'kn)

*Bustintza mattia, gure Irakasle zintzua betiko juan yaku.  
¡Nok esango eban, aretxa baxen sendo eguan gixonak orren  
arin iges-egingo euskunik!*

*Bere erijotz-izparrak ikaratu gindduzan, kokolotuta lez itxittu.*

*Mañari'ko etxeke areto andijan, erdiko mai-ganian bere gorpuba estalduten eban ixarea jaso ta arpegi zurbilla, begijak itxitta, ikusi gendubanian, bijotza taupadaka asi yakun.*

*¡A ete-zan Kirikiño ospetsuba, gogaro (umore) oneko gixona, euzkeldunai ainbeste bidarr barre-eragin eutsena? Axe zan, bai, baña arrezkero ezeukon bixirik. Illotzik eguan gorputza [...].*

Martiartu (*Karmen'go Argia*, 1932 Orrilla 17'gn. zenbakia)

*Etxekoandrak udabarria datorrenean etxe guztiari garbiketa eder bat emoteko arduratu bear litzakez. Sukalde ta gelak zuritu, tximini ta arasak garbitu, gexorik egon diranen oe ta lastaillak garbitu ta eguzkitan axatu, lo-gelak sarri ta ondo ai-*

*ze barriz osatu, soñekoai orbanak kendu, etxe inguruan lora-  
txo batzuk jarri, irola edo komune ganoraz garbi imini, jai  
egunetan maira gizonezkoentzako zerbait geitxoago ekarri, ta-  
bernara joan barik etxean egon daitezcan.*

*Aonantxe izango zarie etxekoandra onak.*

*Larreko (Argia´ren Egutegia, 1928)*

*[..] Alako gizon batentzat, erioak ez du beltzuri; beinepein  
lotsik ez dio; beldurrik ez dio. Ala dagon bati gure Jauna artu  
bearrean dagola errateak, ez dio daldaririk ematen ez eta egite  
ortarik gibelatzen edo atzeratzen.*

*Irakurle maite ori: barkatu, baño, ori errateko, asi nuen la-  
na bukatzera nua; eta zu eta ni, gure Jainko Jaunak deitzen  
gaituelarik ortarako; izan gaitetzten euskaldun langille ta zin-  
doenak bezala; erioari ongi etorriko goxo baten gai.*

*Gabirel Jauregi (Karmen´go Argia, 1936, dagonilla)*

*Landara zugatzak azletik barrurantz iru zati daukoz: gañe-  
rengo azala, barruan egurra ta biotz-biotzean una.*

*Landarearen izerdia azal azpitik, au da, azal eta egur bi-  
tartetik, gora ta bera ibiltzen da.*

*Landarea bizi ta aundi egiteko janaria izerdi onek zustrar-  
tatik gora eroaten dau.*

*Ondo mentetako, landara azalaren zatiak be ezagutu bear  
dira.*

*Azalaren zatiak: azalgaiña, azalmamiña ta azalpea.  
Gañerengo azalgaiña dauko ta me-mea ta orlegia dozu.  
Azpirengo azalpea dauko ta udan izerdi tokia dozu, sara zuri  
dirudi; erdia, au da, azal sendoera guztia, azalmamiña jatzu.*

*Landareari agiri jakona azalgaiña da ta barruko egur on-  
doan daukon zatia azalpea. Azalpe onegaz ingiak egiten zira-  
lako, ingikaia be baderitxo.*

*Landarea nai zugatza mentetakoan, mentuaren izerdi-tokia edo azalpea landarearen izerdi tokiagaz, azalpeagaz, batu bear dira.*

Gama (Ekin, 1933´gnko Epala 18´gn.)

*Txindi edo dirua dala-ta, gizonak iñon diranak esan ditue, eta zuzen esan be; alan da be, eskintzen yakenean, betozkoz begiratzen deutsoenak gitxi ikusiko ditugu. Au ta bestea esan arren, aiskideak ugari ditu, eta ostatua emoteko gustiak gertu. Ur "bedeinkatuko" "mikrobioen" bildur andia dauken asko ezagutzen ditugu, dirua edozeiñen eskutik artu ta ondo gordetan. Dirua berenez andiki-zale da, eta aberatsen yauregiak atsegin izaten yakoz; baña erea datorrenean, edozeiñen eskuetan yarten da, ostatu barik, ostatu barik geldituko dan bildurrik ez dau ta. Aberatsen eskuetatik salerosleakana, ugazabae-netatik, langilleenetara; eta bein yudar sakelean, urrengo kistarren eskuetan, bein lekaidetxean eta urrengo lapurren er-dian. Eta geyenez, bere inguruan griñarik gaiztoenak ibiltan dira. Bekaitza betiko lagun dau.*

Oharra: testu hauetan datozen **rr**-ak eta **ll**-ak, garai hartako ohituren arabera, **r** gangardunarekin eta **l** marratxodunarekin datoz...

Bidaia arin-arin bat egin dugu, argitalpen zaharrak lagun ditugula, mende honetan barrena, euskarak denboraren altzoan izan duen ibilbidearen ikuspegitxo bat *Karmel*-en irakurleei agertu nahirik.

*Luis Baraizarra*